ABENDUKO LAN METAKETAK ETA ORDEZKAPENAK BANATZEKO PROZEDURAREN HARIRA

Kaixo, lankide,

atzo LAN METAKETAK eta ORDEZKAPENAK banatzerako orduan egondako nahasmena dela-eta, **STEILAS** sindikatuak honakoa eskatu eta salatu nahi du:

- ➔ Haurreskolak Partzuergoari eskatu behar diogu horrelako lan eskaintza bat egin baino lehen sindikatuekin **informazioa partekatzea** BETI.
- ➔ Zerrendaren hurrenkera ahalik eta gehien errespetatu eta zaintzeko, lan kontratuen banaketa bezperan egitea hezitzaileon **errealitatera egokitzeko**.
- ➔ Iaz ikasturte bukaeran hartutako **konpromisoa betetzea**: lan eskaintzak telematikoki banatzeko sistema informatikoa ezartzea behingoz eta horretarako beharrezko egokitzapenak egitea.

Enpresak atzo egindakoak berarengan **KONFIANTZA FALTA** besterik ez du eragiten hezitzaile eta sindikatuon artean, eta **GARDENTASUN EZA** larria transmititzen du beste behin ere. Oso nekagarria da egoera hau dagoeneko.

Ezin dugu jarraitu zerrendaren hurrenkeran **behin eta berriz akatsak** nola ematen diren baieztatzen, eta nola urratzen diren batzuen eta beste batzuen **eskubideak eta aukerak**.

Haurreskolak Partzuergoko langileok **kudeaketa gardena merezi dugu** behingoz!

Euskal Herrian, 2019ko azaroaren 29an.

Haurreskolak publikoak doakoak unibertsalak